



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko azaroaren 16an

118 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua ([2. or.](#))

H SAILA:

**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

—2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak ([29. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2001eko azaroaren 14an hartutako Erabakiaren bidez, 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 151 eta 125 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko Arauek ezarritako jardunbidez bideratzea. Arau horiek Biltzarreko Mahaiak 2001eko azaroaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsi zituen.

**2.** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat** irekiko da, **2001eko abenduaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek zuzenketak aurkeztu ahal izateko, Erregelamenduko 126 eta 152. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2001eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

### **I. TITULUA** **Kredituak eta haien aldaketak**

#### **I. KAPITULUA** **Hasierako kredituak eta horien finantzaketa**

**1. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

Onetsi egin dira 2002ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Honako atalak dituzte:

a) Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuak.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak.

c) Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketa-, inbertsio- eta finantzaketa-programak, baita finantzen egoera-orriak ere.

**2. artikulua.** Kreditu eta eskubide ekonomikoen zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetzeko onetsi diren kredituek, bateratuta, 2.491.582.303 euro egiten dute.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen diru sarreraren egoera-orrietan, aurrekontu ekitaldian ustez likidatuko diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak agertzen dira; hain zuzen ere, 2.491.582.303 euro egiten dute bateratua.

#### **II. KAPITULUA** **Aurrekontuetako kredituen aldaketa**

**3. artikulua.** Aurrekontuetako kredituen aldaketa.

Aurrekontuetako kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen aginduen arabera izanen dira, baldin eta foru lege honek agindu horiek aldatzen ez baditu.

Aurrekoa gorabehera, ondokoak ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko:

a) Kontusailen arteko funts mugimenduak baldin eta kontusail horiek helburu berbera badute, eta Europako Batasunak, horiek kofinantzatzeagatik, horien gaineko kontrola hobetzea eskatzen duelako soilik bereizten badira.

b) Hurrengo programako kontusailen arteko funts mugimenduak: 052. programa, "Su-itzaltzea eta salbamendua", baldin eta plantilla-aldaketen ondoriozkoak badira, hau da, funtzionarioen atxikipena aldatu egin delako "Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren" eta "Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoaren" artean. Lehendakaritza Justizia eta Barne kontseilariari ahalmena eman zaio aipatu mugimenduak baimentzeko.

c) "Familia" izenburupeko 922 programako kontusailen arteko funts mugimenduak, familiaren babes sozial eta ekonomikoa bermatzera bideratzen direnak; haiekin bereizkuntza bat egiten da, aurrekontu-beharrengatik, haien jarraipen eta kontrol egokia egiteko.

#### 4. artikulua. Kreditu gehikuntzak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko a) letratik f) letrara bitartean aipatutako kredituez gain, 2002. urteko ekitaldian ondoko kredituez ere gehikuntzak izan ahalko dituzte:

1. Lehendakaritza Justizi eta Barne Departamentuko kontusailok:

a) 020000-04000-1620-122600 kontusaila, "2001erako aurreikusitako KPI errearen desbideraketa ordaintzea" izenekoa.

b) 020000-04000-1620-122602 kontusaila, "2001erako aurreikusitako KPI errearen desbideraketa ordaintzea" izenekoa.

c) 020000-04000-1620-122603 kontusaila, "Langileei buruzko hitzarmena aplikatzeko funtsa" izenekoa.

d) 020002-04300-1309-122100 kontusaila, "Aldi baterako kontratuen bukaerako kalte-ordaina" izenekoa.

e) 020002-04000-1709-122600, "Epaia bete-araztea" izenekoa, epai horietan ezartzen diren zenbatekoen neurrian.

Betearazte horrek I. kapitulu ekonomikoari ez dagokion gasturik ekartzen baldin bada, horretarako kontusail berariazkoa gaitzen ahalko da; horrek ere gehikuntzak izan ahalko ditu. Kasu horren barnean egonen dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak, horien betearazte subsidiarioa Nafarroako Gobernuaren esku izatean funts ekonomikoak egotea beharrezkoa gertatzen denean, baita Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak eta zerga administrazioaren organo kudeatzailearenak ere, gastuen itzulketa eskatzen baldin bada, eta, era berean, Ezinbesteko Desjabetzapenerako Probintzi Epaimahaiaren erabakiak ere, eta, orobat, Nafarroako Foru Komunitateak ordaindu behar dituen FEOGA-Bermearen laguntzen kudeaketaren ondoriozko finantza-zuzenketak.

f) 020002-04120-1001-122600 kontusaila, "Lehendakari ohi eta kontseilari ohientzako prestazioak" izenekoa.

g) 020002-04120-1239-122600 kontusaila, "Funtzionarioen famili laguntza, osagarri berriak, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

h) 020002-04120-1309-122600 kontusaila, "Lan kontratudunen famili laguntza, osagarri berriak, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

i) 020002-04120-1614-314100 kontusaila, "Aldez aurretik jubilatzeagatik jaso beharreko kalte-ordaina, 259/1988 Foru Dekretua" izenekoa.

j) 020002-04120-1620-313602 kontusaila, "Lan-istripuengatik aldi baterako lan-ezintasunaren subsidioa ordaintzea" izenekoa.

k) 020002-04120-1700-122600 kontusaila, "Kalte-ordaina. Derrigorrezko leku aldaketa, bizilekuaren aldaketa eta guzti" izenekoa.

l) 020002-04120-1709-122600 kontusaila, "Lan-istripuengatik kalte-ordaina" izenekoa.

m) 020002-04200-1620-313600 kontusaila, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izenekoa.

n) 020002-04300-1709-122600 kontusaila, "Zerbitzuak aitortzeko Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren aurreikuspena" izenekoa.

ñ) 050002-02400-4809-221100 kontusaila, "Diru laguntzak" izenekoa eta 050002-02400-8319-221100 kontusaila, "Maileguak" izenekoa.

o) 060000-06000-6001-142100 kontusaila, "Espetxe berria eraikitzeko lurra erostea" izenekoa.

p) 060000-06000-6019-142100 kontusaila, "Espetxe berria eraikitzeko lurak urbanizatzea" izenekoa.

q) 060001-06000-6020-142100 kontusaila, "Eraikin judizialak" izenekoa.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko hurrengo kontusailak:

a) 110000-11000-6080-611100 kontusaila, "Euroari egokitzea".

b) 112001-11410-9500-633100 kontusaila "Osoko kreditua. 8/1988 Foru Legeko 39. artikulua" izenekoa.

c) 114002-11300-6020-612700 kontusaila, "Instalazio berriko eraikuntza eta obrak, ondare higiezia birmoldatzea eta janztea".

d) 114002-11300-8500-612700 kontusaila, "Alor publikoko akzioak erostea" izenekoa.

e) 121000-12100-6080-613100 kontusaila, "Tributu-informatikako sistema integratua" izenekoa.

f) 121000-12140-2273-613100 kontusaila, "Datu fiskalak grabatzea" izenekoa.

g) 130000-11100-2269-911100 kontusaila, "Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak" izenekoa.

3. Toki Administrazioiko Departamentuko kontusailok:

a) 211000-21120-8206-124200 kontusaila, "Udal funtzionarioen montepioa kudeatzea" izenekoa.

b) 211001-21220-4600-912500 kontusaila, "Toki entitateen arazoei aurre egiteko finantza-laguntzak" izenekoa.

c) 212001-21300-7600-441100 kontusaila, "Ibaiak arazteko eta saneatzeko Plan Zuzentzailea" izenekoa, hurrengo obren 2002. urteko zatia ordaintzeko behar beste diruarekin: Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioiko Departamentuak izenpetu duten Hitzarmenean –hiri urbeltzak saneatu eta arazteko Plan Nazionalako jarduketari buruzkoan– jasotako obrak, zeinak Europako Batasuneko kohesio funtsen eta Garapen Erregionalerako Europako Funtsaren (FEDER) (2. helburua, 2. ardatza 1. esparrua) kontura finantzatzeko proiektuetakoak baitira.

d) 212001-21300-7600-912203 kontusaila, "Eskualde behartsuetako azpiegituren plan berezia" izenekoa.

e) 210001-21500-7600-912900 kontusaila, "Kalitate eta modernizazio Plana" izenekoa.

f) 212002-21300-7600-441102 kontusaila, "Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin. Tiebasko ura tratatzeko planta".

g) 212002-21300-7600-442100 kontusaila, "Arga ibaiako eskualde-plana", 2002ko urtea finantzatzeko behar den zenbatekoan, Garapen Erregionalerako Europako Funtsara (FEDER) (2. helburua, 2. ardatza, 11. esparrua) bildutako proiektuak betetzeko 2002. urteari dagokion ordainketa finantzatzeko adina.

h) 210002-21400-4600-912900 kontusaila, "Toki enteen administrazio-berregituraketa prozesuak sustatzea" izenekoa.

i) 210002-21400-7600-912900 kontusaila, "Toki Erakundeetako administrazio-berregituraketako prozesuak sustatzea" izenekoa.

4. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 320000-32200-4459-431100 kontusaila, "Zaharberritze bulegoetarako laguntzak" izenekoa.

b) 320000-32210-6000-431100 kontusaila, "Lurra erosi eta etxebizitzak eta eraikinak sustatzea" izenekoa.

c) 320000-32210-6000-431102 kontusaila, "Eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak gauzatzea, eta lurzoruak, eraikinak eta etxebizitzak eskaintzea" izenekoa.

d) 320000-32220-7800-431102 kontusaila, "Etxebizitzaren arloko jardueretarako diru laguntza eta sorospenak" izenekoa.

e) 330000-31200-4600-533100 kontusaila, "Toki Erakundeentzako kalte-ordain eta laguntzak" izenekoa.

f) 330000-31200-4809-533100 kontusaila, "Partikular eta sozietateentzako kalte-ordain, ase-guru eta laguntzak" izenekoa.

5. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kontusailok:

a) 400000-40200-1239-421100 kontusaila, "Zerbitzuen aitorpenerako, osagarri berrietarako, famili laguntzarako eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

b) 400000-41000-1310-421100 kontusaila, "Aldi baterako langileen ordainsariak" izenekoa.

c) 400000-41000-1600-421100 kontusaila, "Gizarte Segurantza" izenekoa.

d) 410001-41120-7600-424102 kontusaila, "0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako ikastetxeak eraiki eta egokitzea" izenekoa.

e) 410002-41610-4600-422200 kontusaila, "Eskola-kontzentrazioen eta Departamentuak ikasleak eskolaratzeko erabilitako udal eraikinen funtzionamendurako diru laguntza" izenekoa.

f) 410002-41620-4800-425100 kontusaila, "Irakaskuntza ertain eta goi ikasketetarako beka eta laguntzak" izenekoa, beka deialdiaren baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiak haien onura izan dezaten bermatzeko adinako zenbatekoan.

g) 410004-41620-2210-425200 kontusaila, "Jantokiak" izenekoa.

h) 410004-41620-2230-425200 kontusaila, "Eskola garraioa" izenekoa.

i) 421000-41500-4701-422000 kontusaila, "Historia eta geografia liburuak euskaraz argitaratzea" izenekoa.

j) 441000-43100-4455-422406 kontusaila, "2001eko ekitaldiko Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko hitzarmena likidatzea"

k) 441000-43100-4800-425100 kontusaila, "Prestakuntza eta Ikerketa eta Garapena (I+G) Planaren laguntzak" izenekoa.

l) 441000-43100-6001-424100 kontusaila, "N.U.P.erako desjabetzeak" izenekoa, desjabeturiko lursailak itun bidez zehaztuko den prezioan ordainduko direla bermatzeko adinako zenbatekoan.

m) 441000-43100-6091-422400 kontusaila, "Tuterako unibertsitate-instalazioei buruzko proiektua eta oroit-idazkia" izenekoa.

n) 451000-42110-4816-456100 kontusaila, "Kultur eta arte entitateekin sinaturiko hitzarmenak" izenekoa.

ñ) 451000-42120-6020-452100 kontusaila, "Liburutegi Nagusi berria" izenekoa.

o) 452000-42200-7810-458100 kontusaila, "Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioa" izenekoa.

p) 452000-42220-6080-453100 kontusaila, "Oteiza Fundazioko Museo Etxea. Inbertsioak eta gastuak" deiturikoa.

q) 452000-42230-6020-452100 kontusaila, "Nafarroako Atxibo Nagusia. Egoitza berria".

#### 6. Osasun Departamentuko kontusailok:

a) 1241 ekonomi kodekoak, osasun arloko udal langile transferituen ordainsariak ordaintzeko

direnak, Foru Administrazioakoak izanik Toki Osasunaren zerbitzuan dauden eta Nafarroa Osasun Eskualdeetan Banatzeari buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aplikatzearen ondorioz transferitzen diren funtzionarioen soldatak ordaintzeko behar den zenbatekoan.

b) 540000-52000-1239-411200 kontusaila, "Zerbitzuen aitopen, famili laguntzaren gehikuntza, gradu, antzinatasun, osagarri berri, eszedentziatik itzultze eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

c) 540000-52000-1309-411200 kontusaila, "Zerbitzuen aitopen, antzinatasunaren gehikuntza, osagarri berrietarako eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

d) 540000-52000-1600-411202 kontusaila, "Gizarte Segurantzza, zor geroratuen amortizazioa" izenekoa.

e) 540000-52000-2269-411203 kontusaila, "Etorikinei osasun laguntza emateko programa (2/2000 Foru Legea) izenekoa.

f) Botikak erosteko direnak, 2215 kode ekonomikoa dutenak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan honako gastu-programetan kokatuak: 540, 541, 542, 543, 544, 545, 546, 547 eta 549.

g) 547005-52300-2269-411200 kontusaila, "NGOlarekin koordinazioa, proiektuak eta programak" izenekoa.

h) 547006-52300-4809-412200 kontusaila, "Farmazia prestazioak" izenekoa.

i) 547006-52300-4809-412202 kontusaila, "Zurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk" izenekoa.

j) 548000-52202-2590-411206 kontusaila, "Organoen transplanteak" izenekoa.

7. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko hurrengo kontusail hau:

a) 611000-61340-6001-513402 kontusaila, "Iruña-Logroño autobiarako desjabetzapenak".

8. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kontusailok:

a) 710000-71210-7700-713200 kontusaila, "Produktzio baliabideak eta makinak erosteko diru laguntzak" izenekoa.

b) 710002-71220-4700-719102 kontusaila, "Merkataritza-kooperatibentzako laguntza, hondamen-kalteak direla-eta" izenekoa.

c) 710002-71220-7600-719100 kontusaila, "Aseguragarriak ez diren nekazaritza-ondasunen eta egituren ohiz kanpoko kalteak" izenekoak.

d) 710002-71220-7700-713100 kontusaila, "Nekazaritza-ustiategien eraginkortasunaren hobetzea, PDR (FEOGA-G)" izenekoak.

e) 711000-71320-4700-713200 kontusaila, "Epizootiak (BET, sukar aftosoa eta beste) kontrolatu eta prebenitzeko jarduketetarako transferentzia arruntak" izenekoak.

f) 711000-71320-7700-713202 kontusaila, "Epizootiak (BET, sukar aftosoa eta beste) kontrolatu eta prebenitzeko transferentziak" izenekoak.

g) 720001-72120-6019-531200 kontusaila, "Nekazaritza-azpiegiturak, PDR (FEOGA-G)" izenekoak.

h) 721000-72210-7701-716103 kontusaila, "Nekazaritzako elikagaien industriari inbertitzeko diru laguntzak, PDR (FEOGA-G)" izenekoak.

i) 721001-72220-4459-716103 kontusaila, "Mahatsa eta ardoa merkaturatzeko hitzarmenak" izenekoak.

9. Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko kontusailok:

a) 810001-81130-6015-535100 kontusaila, "Industria azpiegiturako inbertsioak" izenekoak.

b) 830001-81120-7701-724202 kontusaila, "Inbertsio eta enpleguarengatik funts galdurako diru laguntzak".

c) 830002 proiektuak, "Produktzio berrantolamendua".

d) 840001-81200-7709-542403 kontusaila, "I+G proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru laguntzak" izenekoak.

e) 84001-81200-7810-542406 kontusaila, "Proiektu sektorial eta tematikoetarako diru laguntzak" izenekoak.

f) 860002-82210-7600-751202 kontusaila, "Toki entitateentzako transferentziak, hitzarmenen bidezkoak" izenekoak.

g) 860002-82210-7600-751203 kontusaila, "Parke tematikoa" izenekoak.

h) 881001-84100-4709-322106 kontusaila, "Enplegua sortzeko diru laguntzak, langabeziaren kapitalizazioa dela eta" izenekoak.

i) 881001-84100-4810-322100 kontusaila, "Enpleguko zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako" izenekoak.

10. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontusailok:

a) 900000-91200-4810-134203 kontusaila, "Nazioko eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak" izenekoak.

b) 921001-93200-4600-313400 kontusaila, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko".

c) 921001-93200-4809-313400 kontusaila, "Erditze multiplea izan duten familiei laguntzea" izenekoak.

d) 921001-93200-4809-313402 kontusaila, "Laguntzak, etxeko laguntza pertsonala emateko" izenekoak.

e) 921001-93200-4809-313403 kontusaila, 21003 proiektua, "Familia eta lan bizitza bateragarri egiteko laguntzak familientzat" izenekoak.

f) 925002-93300-4809-313400 kontusaila, "Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak" izenekoak.

g) 925003-93300-4600-313400 kontusaila, "Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak" izenekoak.

h) 926001-93300-4809-314200 kontusaila, "Kotizazio gabeko pentsioak" izenekoak.

i) 926001-93300-4809-314203 kontusaila, "Alargun pentsioak" izenekoak.

11. Nafarroako Kontseiluaren ondoko kontusailak:

a) C0000-C0000-2300-112202 kontusaila, "Kontseilukideentzako dietak, bilkuretara joateko" izenekoak.

b) C0000-C0000-2239-112200 kontusaila, "Kontseilukideei eta bestelako adituei eskatutako ponentzietarako bestelako sariak" izenekoak.

12. Nafarroako Parlamentuaren ondoko kontusailak:

a) P01001-P0000-7450-111100 kontusaila, "Nafarroako Gobernuaren kapital transferentziak" izenekoak, Biltzarraren egoitza berrirako kreditu gehiago behar izanen direlakoan.

**5. artikulua.** Kreditu soberakinen norakoa, bete gabeko lanpostuak direla eta.

Bete gabeko lanpostuak direla eta eman daitezkeen soberakinak behin-behineko kontratuak finantzatzeko erabiltzen ahal dira, zerbitzuen funtzionamendu onerako beharrezkoa baldin bada. Xede horretarako ezarriko dira kredituak, horiei dagokien programan.

## II. TITULUA Langile gastuak

### I. KAPITULUA Jarduneko langileen ordainsariak

**6. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-  
etako funtzionarioen eta estatutupeko langileen  
ordainsariak.

2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako  
administrazio publikoen eta haien erakunde auto-  
nomoen zerbitzuko funtzionario eta estatutupeko  
langileen ordainsariak, 2001eko ekitaldiko Nafa-  
rroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren  
29ko 19/2000 Foru Legean ezarritakoak, 100eko  
2 gehituko dira –aipatutako 19/2000 Foru Legeko  
bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa bete  
ondoren–. Horrek ez du ezertan galaraziko, hala  
ere, lanpostu bakoitzaren ordainsarrietan egokipe-  
nak egitea, hala badagokie, ziurtatzeko gordeko  
dela dedikazio, erantzukizun, arriskugarritasun  
edo nekagarritasuneko edukiarekin dagokien erla-  
zioa.

**7. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-  
etako lan-kontratudunen ordainsariak.

1. 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako  
administrazio publikoen eta haien erakunde auto-  
nomoen zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsa-  
riak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak  
izanen dira, betiere foru lege honetako 6. artiku-  
luan ezarritako irizpideei jarraituz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko-  
en zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak,  
administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontue-  
tan ezartzen dituenak izanen dira, betiere foru  
lege honetako 6. artikuluan ezarritako irizpideei  
jarraituz.

**8. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideak eta  
libreki izendaturiko behin-behineko langileak.

1. 2002ko ekitaldian, Nafarroako Gobernuo  
kideen ordainsariak, foru lege honetako 6. artiku-  
luan ezarritako gehikuntza izanen dute 2001ean  
ezarritakoekiko.

2. 2002ko ekitaldian, Nafarroako Gobernuaren  
eta Nafarroako administrazio publikoen eta haien  
erakunde autonomoen behin-behineko langile  
libreki izendatuen ordainsariak, foru lege honeta-  
ko 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen dute  
2001ean ezarritakoekiko.

### II. KAPITULUA Klase pasiboak

**9. artikulua.** Xedapen orokorrak.

1. 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, egunera-  
tzeko eskubidea duten Nafarroako administrazio  
publikoetako klase pasiboen pentsioak 100eko 2  
gehituko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei  
buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko  
bigarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatian xeda-  
tutakoa bete ondotik.

2. Halaber, aipatu klase pasiboiei dagozkien  
famili laguntza edo seme-alaba elbarrituengatiko  
ordainketek ere arestian aipatu den gehikuntza  
izanen dute.

**10. artikulua.** Funtzionarioen pasiboen araubi-  
dea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbi-  
tzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Batera-  
tuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako  
Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, lehen xeda-  
pen iragankorraren 3. idatz-zatian eta xedapen  
osagarrietan ezarritakoari jarraikiz, eskubide pasi-  
boen araubidea martxoaren 30eko 13/1983 Foru  
Legea baino lehen indarra zuten xedapenei lotuko  
zaie. Soldata erregulatzailerak zehazteko, aintzako-  
tzat hartuko dira funtzionarioek jasotako ordainsa-  
ri handienak, aipatu foru legearen eta hura bete-  
tzeko emandako Ordainsarien Behin-behineko  
Erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera,  
eta horiei Nafarroako aurrekontu orokorrei buruz-  
ko foru legeetan hurrengo urteetarako ezarritako  
ehunekoak gehituko zaizkie. Artikulu honetan  
aipatutakoa ez zaie ezarriko ez lan istripuaren  
ondoriozko ezgaitasunengatiko pentsioei, ez lan-  
bideko eritasunengatiko pentsioei ere.

2. Aurreko idatz-zatian aipatu xedapenen ara-  
bera, erretiro eta pentsioen ondorioetarako zerbi-  
tzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan  
egiazki egindako urteak besterik ez dira kontuan  
hartuko. Urte horien barnean sartuko dira adminis-  
trazio publikoan egiazki egindako urteak, betiere  
behar den administrazioak aitortuak, Foru Diputa-  
zioak 1981eko urriaren 29an hartutako erabakiari  
eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarrai-  
kiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko edo  
toki erakundeetako Administrazioaren montepio-  
ren bati atxikitako funtzionarioen erretiro-, alargun-  
eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek  
indarra hartu ondoren jardunean hil edo erretiratu-  
takoak badira, honako hauek zenbatuko dira, eta  
pentsioaren zio den egintza gertatutako egunetik  
aitzina izanen dute eragina. Aipatu funtzionarioek  
Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan  
kotizatutako aldiak, betiere, aipatu aldiak aipatu  
montepioei kotizatutako beste batzuekin gainjar-  
tzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorio-

etarako soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteengatikako ehunekoak edo kuota.

Aurreko idatz-zatian aipatu funtzionarioek gauzatutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inola ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, beste batzuekin batuta, aipatu erregimenen ondoriozko pentsiorik gauzatu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu eginen baitira horiek. Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo toki entitateek dituzten montepioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargun-pentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren barnean dauden funtzionario publikoek 2002. urtean hartutako erretiro eta pentsioak finkatzeko, ondoko hau hartuko da kontutan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoak 2002 urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urtekoei geroko aurrekontuei buruzko foru legeek, hau barne, finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Horretarako, 2002rako soldata eta garestitze plusaren zenbatekoak lortu ahal izateko, jarraian dagoen taulan agertzen diren zifrei hurrengoak ezarri beharko zaizkie: abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eta lege testu honetako 9. artikuluan ezarritako ehunekoak.

Maila	Soldata (Eurotan)	Garestitze plusa (Eurotan)
0	11.524,37	7.533,65
1	9.663,79	7.136,88
2	7.949,90	6.770,80
3	7.077,14	6.584,67
4	6.726,57	6.510,07
5	6.430,96	6.447,09
6	6.158,60	6.388,80
7	5.900,49	6.480,08
8	5.720,56	6.682,07
9	5.460,09	6.626,39

10	5.306,75	6.472,32
11	5.168,72	6.391,60
12	4.872,21	6.216,54
13	4.670,04	6.117,43
14	4.301,19	5.929,22
15	3.961,52	5.657,76
16	3.754,39	5.535,78
17	3.412,03	5.414,04

Salbuespen gisa, lan istripu edo lanbideko eritasunaren ondoriozko ezgaitasunagatik jubilazio pentsiorik dagoenean, bai eta lan istripuz edo lanbideko eritasunez hil ondorengo alarguntza edo umezurtz pentsioetan ere, funtzionarioak jubilatu edo hil aurreko urtean bere lanpostuarengatik jasotako ordainsariak osatuko dute alokairu arauzailea.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako ordainsari sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean emandako ahalmena oinarritzat hartuz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa izanen da funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan gehitutakoak erantsiz, 2002koa barne, ateratzen dena.

4. Funtzionarioek pentsio araubidearen finantzaketa lagunduko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko arauteria aplikatuz ateratzen den zenbatekoaz, ondorengo urteetako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru legeetan ezarritako pentsio igoeren ehunekoak erantsirik.

Horretarako, aipatu foru legea baino lehenago zeuden lanpostu edo mailetan sartuko dira 1984ko urtarrilaren 1az geroztik sartutako funtzionarioak, orain betetzen dituzten lanpostuen eta lehenagokoen arteko balioaldiz edo analogiaz.

5. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateratuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, lehen xedapen iragankorren 1. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, 1984ko urtarrilaren 1a baino lehenago zeuden klase pasiboen pentsioentzat ez da aplikagarria izanen aipatu Langileriaren Estatutua; ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontuei buruzko foru legeetan ezarritako ehunekoak bakarrik gehituko zaie.

6. 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko erretiro-pentsioa urteko zenbateko gordin hau izanen da: Nafarroako administrazio publikoetako E mailako funtzionarioentzat 2002ko ekitaldirako finkatutako den oinarritzko soldataren adinakoa. Idatz-



zati honek xedatutakoa bakarrik ezarriko zaie indarreko arautegiaren arabera gaurkotzeko eskubidea duten pentsioei.

Osasun Laguntza-Erabilera Berezia sistemako kotizazioengatik egin beharreko atxikipenak kalkulatzeko, ulertuko da gutxieneko erretiro pentsioaren 100eko 55 "Oinarrizko soldata" kontzeptuari dagokiola eta gainerakoa "Bizitzaren garestitze plusa" kontzeptuari dagokiola.

7. 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko alargun-pentsioa ekitaldi horretarako ezarriko den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinako urteko zenbateko gordina izanen da.

Osasun Laguntza-erabilera berezia sistemako kotizazioengatik egin beharreko atxikipenak kalkulatzeko, ulertuko da gutxieneko alargun-pentsioaren 100eko 55 "Oinarrizko soldata" kontzeptuari dagokiola eta gainerakoa "Bizitzaren garestitze plusa" kontzeptuari dagokiola.

8. Artikulu honetako 7. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Nafarroako administrazio publikoen klase pasiboen ezein montepioen kargura emandako zurtasun-pentsioei, zein bere Erregelamenduaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legeko hamazortzigarren xedapen gehigarriak emandako idazkeraren arabera.

Beraz, gehikuntza honetatik at geratu da aipatu 5/1991 Foru Legeak ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzen zen arautegiaren arabera emandako umezurtz-pensio oro, onuradunaren ezgaitasuna dela-eta aitorturikoak salbu.

9. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pentsioei buruzko Erregelamenduko 8. artikuluko 3. idatz-zatian eta udal funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Erregelamenduko 10. artikuluan aipatzen diren zurtasun-pentsioak eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten zurtasun-pentsioak onartu egingen dira; betiere, hori eskuratzeko bete beharreko baldintzak bete beharko dira pentsioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, alargun pentsioa jasotzen duen haren ezkontidea edo bikotekide egonkorra hiltzen den egunean.

10. Nafarroako administrazio publikoetako montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako diru-sarrerekin bai alargun-pentsioarekin.

**11. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan sarturik ez dauden funtzionarioen eskubide pasiboak.

Kapitulu honetan xedatutakoa ez da aplikagarri izanen ondoren aipatzen diren funtzionarioentzat:

a) Nafarroako Foru Komunitatean sartuta daudenentzat, Estatuko administrazioetik eginkizun eta zerbitzuak transferitzeari buruzko errege dekretuen ondorioz; betiere, hasieran zeukaten gizarte segurantzako edo aurreikuspen sistemarekin jarraituko dute.

b) Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik egon eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen sartutakoentzat.

**12. artikulua.** Ikastetxeetako funtzionarioen eta hezkuntzako ikuskatzaileen borondatezko erretiroa.

1. Funtzionarioek beren funtzionario izaerari uko egiten badiote edo beren borondatez jubilatzen badira 60 urtetik gora dutela eta zerbitzuan 28 urte eginda, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko Lege Organikoaren (LOGSE) bederatzigarren xedapen iragankorren babesean eta bertan adierazten diren baldintzak betez, Foru Komunitateko Administrazioak borondatezko erretiro prima bat emanen die; prima hori xedapen iragankor horretan aurreikusitako aparteko haborokinaren osagarri izanen da.

2. Erretiro prima eskuratzeko, funtzionarioak 1996ko irailaren 1ean jardunean egon beharko zuen, egoera horretan etenik gabe jarraitu eta data horretatik aitzina Nafarroako Foru Komunitatean dauden ikastetxeetako plantilletako lanpostuetan aritu; hezkuntza ikuskatzaileen eta hezkuntza administrazioaren zerbitzuko ikuskatzaileen kidegoetako funtzionarioen kasuan, ez da derrigorrezkoa izanen ikastetxeen plantilletako lanpostuei atxikita egotea.

3. Aurreko idatz-zatietan aparteko haborokinari eta erretiro primari buruz xedatutakoa aplikatuko zaie ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean edo geroagoko arauen babesean funtzionario bihurtu ziren langileei eta lan itunpeko irakasle finkoei.

4. Borondatezko erretiroarengatik sari osagarriaren zenbatekoa, foru lege honetako 1. eranskinen funtzionarioaren adinaren, zerbitzu urteen eta sartuta dagoen kidegoaren arabera ezartzen dena izanen da.

### III. KAPITULUA

#### Beste zenbait xedapen

**13. artikulua.** Langileen aldi baterako kontratazioa.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, zerbitzuaren beharrak hala eraginda, beharrezkoak diren langileak administrazio edo lan araubidean aldi baterako kontratatzeko, foru lege honetan ezarritako aurrekontu-mugen barnean.

**14. artikulua.** Lanpostuak eraldatzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio beharrezkoak diren neurriak har ditzan plantilla berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuengatik edukirik gabe gelditutako lanpostuak, bete gabeak ez direnak, beste lanpostu batzuetan eraldatzeko. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, zuzenean eta salbuespen gisa, eginkizunak berriz emanen eta lekualdaketak egiten ditu, maila beraren barnean.

**15. artikulua.** Foruzaingoa

Nafarroako Gobernuak, 2002 urteko lan eskaintza publikoan, aurrekontu kontsignaziorik gabe, 50 foruzain lanpostu sartuko ditu, gehienez ere.

### III. TITULUA

#### Finantza eragiketak

#### I. KAPITULUA

##### Abalak

**16. artikulua.** Abalak.

Legeetan aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak guztira 12 milioi euro osatzen duten abalak eman ahal izanen ditu. Muga horren barnean, baimena ematen zaio Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari abalak emateko ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako, azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz. Abal horien gehieneko zenbatekoa, proiektu bakoitzeko, 1.500.000 eurokoa izanen da.

#### II. KAPITULUA

##### Zorpetzea

**17. artikulua.** Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, merkatuaren ohiko baldintzetan maileguak edo kredituak itundu edo zor publikoa jaulkitzeko. Haren muga izanen da 2002ko abenduaren 31ko

saldo biziduna ezin izanen dela izan 2002ko urtarilaren 1ekoa baino handiagoa.

### IV. TITULUA

#### Toki entitateak

**18. artikulua.** Nafarroako toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsa.

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa, 2002rako, 171.728.003 eurokoa izanen da.

2. 2002ko ekitaldirako ezarri den partaidetzaren zenbatekoa honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 106.042.044 euro.

II. Kapital transferentziak: 46.560.293 euro.

III. Beste laguntza batzuk:

a) Iruñeko Udalari, "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" delakoagatik: 13.406.505 euro.

b) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 188.057 euro.

c) Nafarroako udalentzako finantza-konpentsazioa: 5.531.104 euro, zeintzuetatik 1084.084 euro zenbait udali emanen baitzaio, biztanleak aplikatutako gastuaz ponderatzearen aldagaia konpentsatzearen, eta 4.447.020 euro 4.001 eta 40.000 biztanle bitarte duten udalei, finantza-efizientzia dela eta.

**19. artikulua.** Transferentzia arrunten funtsa eta "beste laguntza batzuk" izenekoaren c) idatzatia banatzeko formula.

1. 2002. urteko ekitaldian, ondoko legeotan ezarritakoa izanen da banaketa egiteko formula: abenduaren

30eko 23/1997 Foru Legea, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten partaidetza funtsa 1998ko eta 1999ko aurrekontu ekitaldietarako banatzeko zenbatekoa eta formula ezartzen dituen; eta 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeko hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian onetsitako aldaketa. Biztanleria 2001-1-1eko errolda

2. Banaketa formularen erabiliko diren aldagaien balioak ondokoak izanen dira:

A L D A G A I A	2002ko ekitaldia
Biztanleria	2002-1-1eko errolda
Biztanleriaren aldaketa 10 urtetan	1992-2002ko errolda

Entitate kopurua	1996ko errolda
Biztanleria barreiatua	1996ko errolda
Biztanleria 16 urte	2002-1-1eko errolda
Biztanleria 65 urte	2002-1-1eko errolda
Langabetu kopurua	2001. urtea
Hiri-lurzoruaren zabalera garbia	2002-1-1eko datuak
Zerga ahalegina:	2000. urtea
-Diru sarrera kitatuak	
-Merkatuko balioa	
-Katastroko balioa	
Komunalaren balio katastrala	2002-1-1eko datuak

Zerga ahalegina: 2000. urtea<sup>3</sup>. Kontzejuez denaz bezainbatean, 2002. urterako, 1997an lortu zuten zenbateko osoa bermatuko zaie.

**20. artikulua.** Europako Batasuneko funtsez finantzatzeko inbertsioen Plan Osagarria.

Ekitaldi ekonomiko honetan erabiltzen ez diren Plan Osagarriko balia bideak hurrengo ekitaldikora pasatuko dira.

**21. artikulua. Elkarte tradizionalen inbertsioetarako diru laguntza eta onurak.**

Bardeako Komunitateak eta Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako Batzarrek Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako diru laguntzak eta gainerako onurak jaso ahal izanzen dituzte, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

**22. artikulua.** Udal funtzionarioen montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak 5.513.637 euroko ekarpena egingen du, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren barnean dauden Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen artean sortzen diren pentsioak finantzatzeko.

Zenbateko hori Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketak 2001eko ekitaldian sortutako kostuen banaketan udal bakoitzari esleitu zaion kuotaren proportzio berean banatuko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak 2.989.206 euro banatuko ditu Iruña, Tuter eta Tafallako udalen artean, haien berariazko montepioen kudeaketak 2001eko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

**23. artikulua.** Administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena.

“Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 210002-21400-4600-912900 kontusailak eta “Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 210002-21400-7600-912900 kontusailak finantzatzeko dituzte Nafarroako Gobernuak eta euren zerbitzuak elkartzen dituzten toki entitateek sinatu beharreko hitzarmeneta-ko aurreikuspenak.

“Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 210002-21400-7600-912900 kontusaila mankomunitateen egoitzak edo beren administrazio-zerbitzuak elkarrekin ematen dituzten entitate asoziatiboaren egoitzak eraiki eta hobetzeko erabili ahal izanzen da. Lehenetsunak 2001-2003rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planeko kalifikazioen hurrenkera errespetatuz ezarriko dira. Kalifikazio haiek plan hari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta hori garatzen duen foru dekretuan aipatzen dira.

## V. TITULUA Aurrekontuen kudeaketa

**24. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak.

Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak Mahaiak edo Lehendakariak eskatu ahala libratuko dira, irmoki eta aldizkakotasunez.

**25. artikulua.** Nafarroako Kontseilua.

Foru Komunitateko administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen da Nafarroako Kontseilua, haren independentzia organikoari eta funtzionalari kalterik egin gabe.

Era berean, Nafarroako Ogasuneko Kontu-hartzailetza Nagusiari lotuta egonen dira haren jarduketak ekonomikoak eta aurrekontu-jarduketak.

**26. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuaren dotazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmeneko transferentzia arruntak, oinarrizko finantzaketa xede, alde aurreko hiruhilekoetan egingen dira oro har, behar handiagorik frogatzen ez bada behintzat.

Irakasleen ordainsari osagarriari aurre egiteko xedearekin Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmenaren dauden transferentzia arruntak kopuru bereko lau epetan libratuko dira, alde aurreko hiruhilekoetan, alde aurretik haren Gerentziak justifikatu ondoren.

Irakaskuntza eta ikerketa proiektuei dagokiez, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmenean dauden transferentzia arruntak bi epetan libratuko dira, aldez aurretik haren Gerentziak hori eskatuz eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmeneko kapital transferentziak bi epetan libratuko dira, aldez aurretik haren Gerentziak hori eskatuz eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

**27. artikulua.** Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuegoaren aurrekontuaren dotazioak.

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuegoari eginen zaizkion transferentzia arruntak aldez aurreko hilabeteetan libratuko dira oro har, behar handiagoak justifikatzen ez badira behintzat.

Kapital transferentziak libratuko dira Partzuegoaren lehendakariak eskatzen dituen neurrian, haiek eskatzea eragin duen gastua egin dela frogatuz.

**28. artikulua.** Herrietako osasun etxeen diru laguntzak.

547001 zenbakiko "Oinarrizko osasun laguntzako zentroak eraiki eta birmoldatzeko transferentziak" kontusailako kredituekin –herrietako osasun etxeak eraiki eta birmoldatzeko baita–ehuneko 100eko diru laguntza emanen da, diru laguntza horiek emateko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onetsiko dituen arau-oinarrietan ezarriko diren baldintzei jarraituz.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean burutuko du herrietako osasun etxeen ekipamendua.

**29. artikulua.** Organo birlandaketen sustapena

Giza-ehun eta organoen birlandaketa eta dohaintza sustatzeko xedearekin erietxeek hartzen duten diru kopurua erabiltzen ahalko da hala ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuetarako nola ondasun inbentariagarrietako gastuetarako, baldin eta zerikusia badute hasierako xedearekin.

**30. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetako aldaketak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari kudeatzaileak baimena ematen ahal du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 46.2 artikuluan

aipatzen diren aurrekontu-aldaketak egiteko, erakunde autonomo horren esparruan.

**31. artikulua.** Sindikatuak eta enpresarien elkarteak.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren aurrekontuan sindikatuentzat egiten den gastu-kontsignazioa, guztien artean banatuko da, bakoitzak Foru Komunitatearen eremuan duen ordezkari-tza-mailaren arabera, eta 2001eko abenduaren 31n lorturiko emaitzei jarraituz.

Halaber, "Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik bertan dauden langile-sindikatuak, gizarte-ekonomiako elkarteak eta enpresari-elkarteak egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila, haietako bakoitzak kontseilu horretan duen kide-kopuruaren arabera banatuko da aipatu entitateen artean.

Era berean, "Sindikatuaren hauteskunde-prozesua jarraitzeko Batzordea osatzen duten sindikatuak bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko Batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuaren artean banatuko da, bertan duten kide-kopuruaren arabera.

**32. artikulua.** Gastu-konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoak, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lanekoak eta Osasunekoak, dagozkien eskumenen esparruan, beka eta diru laguntzak eman ditzakete ikertzaile eta artisten prestakuntza eta espezializaziorako, hezkuntza bereziko, Foru Komunitateko elkarrizketarako laguntzaileentzako egitaraurako, eta Nafarroarentzako interes berezia duten proiektuak egiteko. Xede horretarako, gastu-konpromisoak hartuko dituzte, dauden ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, baldin eta esandako konpromisoek gainditzen ez badituzte xede horretarako aurreko ekitaldian aipatzen diren zenbatekoak. Gastu-konpromiso berbera, muga horiexekin, hartzen ahal du Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, enpresen lehiakortasunerako laguntzak –maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuan arautuak–; eskualdez gairako elkarlan proiektuetarako diru laguntzak eta Estatuak transferitutako "Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak" programetarako laguntzak –Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko abuztuaren 3ko Aginduan arautuak– emateko, eta Hezkuntza eta Kultura

Departamentuak, eskola garraioa eta eskola-jantokiak zerbitzua kontratatzeko.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarte-ekintzaren alorreko prestakuntza jardueretarako laguntzak eman ahal izanen ditu, horretarako etorkizuneko ekitaldien kargura konpromisoak hartuz, aurreko ekitaldian helburu horrekin kontsignaturiko kopuruak gainditzen ez dituztenean, betiere.

Jarraibidetzat harturik oinarrizko errenta arautzen duen 120/1999 Foru Dekretua eta 242/2000 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira langileen laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotze-tasa sustatzeko neurri gisa onetsi diren zuzeneko diru laguntzak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak konpromisoak hartzen ahalko ditu, etorkizuneko ekitaldien kargura, betiere legezko xedapenetan ezarritako mugak gainditzen ez badituzte. Halaber, eta 0-3 urte bitarteko zikloa arautzen duen Foru Dekretuari jarraikiz, gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu ekitaldi horren ondoko aurrekontuen kargura, baldin eta legezko xedapenetan ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.

2. Nafarroako Gobernuak baimena ematen ahal du hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastu-konpromisoak hartzeko –Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimentzen dituenak baino gehiago–, bai eta transferentzia arruntak egiteko ere, Europako Batasuna finantzakidea den eta hiru urtetik goitiko plangintza izan behar duten plan, egitarau eta ekimenei aurre egiteko.

3. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartu ahal izanen ditu, garapenerako lankidetzak-proiektuak finantzatzeko, proiektuak martxoaren 9ko 95/1992 Foru Dekretuan xedatuaren arabera diruz lagunduak badira, eta proiektuen bideragarritasunak ezinbesteko badu ekitaldiaz gaindiko eta, gehienez ere, hiru urterako plangintza.

4. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartu ahal izanen ditu, garraio-zerbitzu publikoen titular diren enpresei ordainak emateko.

5. 2002tik aurrera eta administrazioaren berregituratze eta ekonomi eta finantzen kudeaketarako prozesuak amaitzen diren urtera bitarte, Toki Administrazioako Departamentuak diru laguntza arruntak ematen ahalko dizkie toki-entitateei, helburu horietarako, gastu konpromisoak hartuz dagokionaren hurrengo hiru ekitaldietarako. Gastu

konpromiso horiek ezin izanen dituzte gainditu Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzerako finkatzen dituen mugak.

6. Herrietako osasun etxeak eraiki eta birmoldatzeko diru laguntzak direla-eta –547001 proiektuko “Oinarrizko osasun laguntzako zentroak eraiki eta birmoldatzeko transferentziak” kontusailean bilduak–, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu, dagokion ekitaldiaren hurrengo aurrekontuen kontura, baldin eta urteko konpromiso horiek guztiek aurreko ekitaldian xede horretarako finkatu den zenbatekoa gainditzen ez badute.

**33. artikulua.** Europako Batasuneko programen aurrekontuetako aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena ematen ahal du, ekitaldian zehar Europako Batasuna finantzakide duten programa eta proiektuak ahalik eta hobekien burutzeko, Europar Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo ondoren Jarrailpen Batzordeek edo Europar Batzordeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketa horiek gastu-egoeretan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

**34. artikulua.** Itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sostengua.

1. Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 49. artikulua bigarren eta hirugarren idatz-zatietan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru kopurua hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da 2002. urterako, diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoen zenbateko osoa banatzeari dagokionez.

Hezkuntza eta Kultura departamentuari ahalmena ematen zaio ituntzearen xede den hezkuntza maila bakoitzean indarra duen ikasketa plana irakasteko behar diren irakasle/unitate itundua erlazioa zehazteko. Horretarako, 25 eskola orduko lanaldiak hartu dira oinarritzat aste eta irakasleko. Bestalde, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ezin izanen ditu bere gain hartu ordainsarrietan egin beharreko igoerak, edo zuzendaritza karguetako edo antzinatasuneko osagarriak esate baterako, hamargarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoetan ezarritako mugaz gaindikoak badira.

Langile irakasleen ordainsariei buruzko aurreikuspenek, hamargarren xedapen gehigarrian jasoak, 2002ko urtarrilaren 1etik hasita hartuko

dute indarra, Irakaskuntza Pribatuaren Talde Hitzarmenak onesten diren datak horretan eragirik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartzen ahalko ditu ugazaben erakunde guztiek espreski horrela eskatzen dutenean, sindikatuak entzun ondoren, kasuan kasuko Hitzarmena izenpetu arte. Konturako ordainketak 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen dute indarra.

Langile irakasleen ordainsarietarako ezarri diru kopuruak, gizarte kargak barne, administrazioak zuzenean ordainduko ditu, ordainketa delegatuaren bidez, ikastetxeko irakasle eta titularraren arteko lan harremana galarazi gabe.

“Beste gastu batzuetarako” eta, hala balitz, langile osagarrietarako moduluko osagaiak –hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoak— 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dituzte ondorioak.

“Beste gastu batzuetarako” diru kopuruak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie eta horiek ikasturtea bukatzean justifikatu beharko dute aplikatu direla.

“Gastu aldakorak” osatzen dituzten zenbatekoen banaketa itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera eginen da.

2. Egun, Nafarroan lanbide heziketa berariazoaren titulu guztiak irakasten ez direnez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2002/2003 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriko diren eta hamargarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden erdi edo goi mailako heziketa ziklo eta lanbide hastapeneko programetako modulu ekonomikoak, eta aipaturiko xedapen gehigarri horretan sartutakoak behin-behinekoz aldatu ahal izanen ditu; aldaketa horiek 2002/2003 ikasturtearen hasieran izanen dituzte ondorioak, haien ezarpena zein den ikusita.

3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, goi mailako edo maila ertaineko Heziketa zikloak eta Gizarte Berme Programak ezarri dituzten ikastetxeei Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 3 e) hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen hezkuntza-, psikopedagogia- eta lanbide-orientatutako zerbitzu espezializatuarentako finantzaketa emanen zaie. Finantzaketa hori honako proportzio honetan emanen da: eginkizun horietarako profesionalaren lanaldi oso bat aipatu hezkuntza mailetako itundutako 25 unitate bakoitzeko. Beraz, itunduriko zentroek eskubidea izanen dute aipaturiko profesionalaren lanaldiaren finantzaketa eskura-

tzeko, itunduta dituzten aipatu mailetako unitateen kopuruaren arabera.

4. Ikasleengandik hartu beharreko kopurua, bai Haur Hezkuntzako bigarren zikloko derrigorrezkoa ez den mailaren irakaskuntzarako izenpeturiko banakako itun partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarriaren kontzeptupekoa, bai eskusiboki araturiko irakaskuntza kontzeptupekoa ere, 22,92 euro ikasle/hilabetekoa da –hamar hilabetetan zehar–, 2002ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte horretako irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte.

Ikasleei kopuru horiek kobratzearen ondorioz zentroek lorturiko finantzaketa modulu ekonomiko “bestelako gastuak” atalari aurre egiteko erabiliko da; beraz, administrazioak “bestelako gastuak” ataleko gutzizko kopurua erdiesteraino falta den dirua baizik ez du ordainduko.

5. Goi mailako heziketa zikloetako hitzarmen berezia partziala izanen da; beraz, goi mailako heziketa zikloetako derrigorrezkoa ez den mailaren irakaskuntzarako izenpeturiko banakako itun partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa ikasleengandik hartu beharreko kopurua, eskusiboki araturiko irakaskuntza kontzeptupean, hau izanen da: 37,42 euro ikasle eta hileko, hamar hilabetez, 2002. urteko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2002. urteko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte, lan zentroetako Lanbide Heziketa baizik ez duen ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleak salbu; horiek 32,45 euro ikasle eta hileko ordainduko dute, lan zentroetako Lanbide Heziketak irauten dituen 2002/2003 ikasturteko hiru hiletan.

Goi mailako heziketa zikloetara sartu ahal izateko prestakuntza ikastarorako itun berezia partziala izanen da; izan ere, goi mailako heziketa zikloetara sartzeko derrigorrezko irakaskuntzakoa ez den prestakuntza ikastarorako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitutako funtsetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa ikasleengandik hartu beharreko kopurua, irakaskuntza arautuko kontzeptuan soilik, hileko 26,53 euro izanen da ikasle bakoitzeko eta hamar hilabetez emanen da, 2002ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era eta irailaren 1etik abenduaren 31ra.

Ikasleei kopuru horiek kobratzearen ondorioz ikastetxeek lorturiko finantzaketa modulu ekonomiko “bestelako gastuak” atalari aurre egiteko erabiliko da; beraz, administrazioak “bestelako

gastuak" ataleko guztizko kopurua erdiesteraino falta den dirua baizik ez du ordainduko.

6. Zuzendaritzako eginkizunetan laguntzeko, lkastetxeetako parte-hartze, ebaluazio eta gobernuari buruzko abenduaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedaturikoarekin bat, finantzaketa baten beharra dago. Hori dela-eta, hezkuntza maila eta modalitateetako eskola unitateko modulu ekonomiko guztiek, lantokietako prestakuntza unitateak izan ezik, "bestelako gastuak" kontzeptuan 214,82 euroko kopurua daukate urtean, zuzendaritza edo/eta pedagogiako eginkizunetako beste kargu batzuk finantzatzeko. Hori dena zuzendaritzako osagarriaz gain, "gastu aldakorrak" izeneko atalean sarturik baitago.

7. 2002ko irailaren batetik aurrera, hamargarren xedapen gehigarrian goi mailako heziketa zikloetako bigarren mailarako ezarritako modulu ekonomikoek, lantokietako prestakuntza unitateek izan ezik, 0,08 puntutan handituko dute irakasleen ratioa, eta, horrenbestez, langile irakasleen ordainsarietarako ezarri diru kopuruak, gizarte kargak barne, eta gastu aldakorretarako ezarritakoak 2.000,97 euro eta 246,46 euro handituko dira hurrenez hurren.

8. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta derrigorrezko hezkuntzetan hezkuntza-premia bereziak dituzten edo sozialki kaltetutako gutxiengo etniko zein kulturaletako partaideak diren ikasleak dituzten itunduriko ikastetxeek, gainera, bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: laguntza-irakasleak, logopedia-zerbitzuak eta zaindariak edo bestelako pertsonal osagarria.

Baliabide horiek esleituko dira Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsitako deialdi publikoa egin ondoren, beharrezkoak diren txosten teknikoek jarraituz.

**35. artikulua.** Oteiza Fundazioaren Museo Etxea.

"Oteiza Fundazioaren Museo Etxea. Inbertsio eta gastuak" izeneko kontusailari, fundazio horren edozein gastu aplikatzen ahal zaio.

**36. artikulua.** Bermeak ematea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen diru laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeari buruzko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen 18.2 artikuluan ezarritako bermeak ez dira aplikatuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta INAFRE fundazioak etengabeko prestakuntzarako sinatutako Hitzarmenaren ondo-

riozko jardueretan parte hartzen duten entitateen kasuan.

**37. artikulua.** Euroan sartzea.

"Euroan sartzea" izeneko kontusailari edozein gastu aplikatu ahalko zaio, hau da, euroan sartzeko beharrezkoak diren lan eta inbertsioek sorturiko edozein gastu.

**38. artikulua.** Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF).

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio programa, ekimen, proiektu edo ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF) garatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak zuzen aplikatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-sailak paratu edo/eta gehitzeko, sartzen diren aurrekontu-programa eta gastuen izaera edozein dela ere.

Finantzaketa, betiere, hurrengo kontusailaren kargura egingen da: 116002-11630-6092-134102; izena, "Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF)".

**39. artikulua.** Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak, arestian esandako gastu eta ordainketak baimendu ahalko ditu eta Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren aurreko baimena beharko du 6.010 euro baino gehiagokoak direnentzako.

**40. artikulua.** Ikerketa-proiektuak

Osasun Departamentuak sustaturiko osasun zientzien arloko ikerketa-proiektuek horren inbertsio propiotzat joko dira, eta ez zaie aplikatuko diru laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea.

Aipaturiko proiektuak deialdi publikoaren ondorioz horretarako eskaera egiten dutenen artetik hautatuak izanen dira, batzorde tekniko batek proposaturik. Batzorde horren osaketa aipaturiko deialdian zehaztuko da.

**41. artikulua.** Zerbitzuen funtzionamendu normalerako garrantzi txikikoak diren gastuak.

Foru Komunitateko administrazioari zuzendari nagusiek, idazkari teknikoek eta zerbitzu-zuzendariak, kasuan kasuko administrazio-unitatearen funtzionamendurako beharrezko gertatzen diren gastuak baimendu ahal izanen dituzte; betiere,

aurrekontuetan kontsignazioa izanik, horien zenbatekoa ez bada 12.020 euro baino altuagoa –zuzendari nagusi eta idazkari teknikoek kasuan–, eta 3.005 euro baino altuagoa –zerbitzu-zuzendarien kasuan–. Ulertuko da gaikuntza horrek balioko duela, baita ere, funtzionamendu horretarako beharrezkoak diren horniduretarako, salbu eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak modu zentralizatuan atenditzen dituenetarako eta, urriaren 19ko 307/1998 Foru Dekretuaz baliatuz, eskumena transferitua duten kontratuetarako.

**42. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko garrantzi txikiko gastuak.

Osasun etxeetako zuzendariak hainbesteko kopuru bat edukiko dute, hilean, beren osasun etxeetako gastu ustekabeko, premiazko edo zehatzei aurre egin ahal izateko. Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariak ezarriko du hainbesteko kopuru horren zenbatekoa.

**43. artikulua.** Jabari pribatuko ondasunak ematea.

Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusirik onorioetarako, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari jabari pribatuko ondasunak, eta bereziki Nafarroako Gobernuarenak diren akzioak, Foru Komunitateko sozietate publikoei edo kapitalean Foru Komunitatearen partaidetza duten merkataritza sozietateei eman diezaien aipatu aginduan ezarritako gehieneko kopurutik gora.

**44. artikulua.** Zenbait ondasun zuzenean besterentzea.

Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legearen 271.1 artikulua aipatzen dituen ondasunak zuzenean besterendu ahalgo dizkie babes publikoko araubideren bateko etxebizitzak sustatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei -laguntza arlokoak, sozialak edo sindikalak-, baldin eta frogatzen badute delako sustapen horren bideragarritasuna bermatzeko esperientzia eta bitartekoak badituztela. Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu babes publikoko etxebizitzak hartuko dituztenek horretarako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

**45. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen aldaketa.

Foru lege honek indarra hartzen duenean izanen ditu ondorioak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 114. artikulua aldaketa honek:

“114. artikulua. 1. Nafarroako kontu orokorren egitura, edukia, egiteko arauak eta horien agregazio edo sendotzea, baldin badago, egiteko irizpideak eta horien irispena Ekonomia eta Ogasun kontseilariak zehaztuko ditu, Kontu-hartzaile Nagusiak hala proposatuta. Nolanahi ere, aurreko artikuluan definituriko ente eta sozietateen gaineko informazioa izanen du, alderdi hauei buruzkoa:

a) Ekonomia, finantza eta ondare egoera.

b) Ekitaldiko ekonomia eta ondare emaitzak.

c) Foru Lege honen 113. artikulua a) eta b) letretan deskribaturiko enteen aurrekontuen exekuzioa eta likidazioa.

2. Nafarroako kontu orokorrei informazioa gehitu ahalgo zaie foru lege honen 113. artikuluan definiturik ez dauden enteei buruz, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak hala erabakita, kontuan harturik Foru Komunitateko Administrazioak horietan edo horien finantzazioan parte hartzen duen, ekonomia eta finantza aldetik duten garantzia eta horiei buruzko araudi berariazkoa”.

## VI. TITULUA Kontratazioa

**46. artikulua.** Kontratazioaren arloko eskurantzak

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguruen Ataleko buruari ahalmena ematen zaio 30.050 euro baino aurrekontu altuagoa ez duten hornidura-kontratuak sinatzeko, edo 48.080 euro baino aurrekontu altuagoa ez dutenak, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 18.2.c) artikuluan jasotzen diren kasuetan, betiere kontratazioa beste departamentu edo erakunde autonomo batzuetara eskualdatua izan ez bada.

Kontratazio eta Aseguruen Ataleko titularra ez baldin badago, gaixorik badago edo bere postua hutsik badago, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuko zuzendariak erabiliko du.

2. Kontratazio eta Aseguruen atalburuak bulegoa gaiez hornitzeko ahalmena eskuordetu ahalgo du, ahalmena Hornidura Bulegoko buruari emanaz.

3. Aurreko idatz-zatian aipaturiko kontratua ahalmenak esleituko dira Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 12.1.a) artikulua kontseilariari ematen dien eskumen orokorraren kalterik gabe. Kontseilariak edozein unetan kasuan kasu-



ko kontratua beraiek sinatzea eskatu ahal izanen dute.

4. Garraio zerbitzuak kontratatzeko eta garraio-jarduerak xede dituzten diru laguntzak emateko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zerbitzuak aldeko txostena eman beharko du aurretik, derrigorrez.

**47. artikulua.** Zenbait erakunde autonomotako hornidura kontratuak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte hornitzaileei hamabostean behin eskaintzak eskatuz, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

2. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua-ren menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte hornitzaileei bi hilabetetan behin eskaintzak eskatuz, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

**48. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoetako kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea.

Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aitzina, Nafarroako administrazio publikoetako kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen zenbait artikuluren eduki berria hauxe izanen da:

BAT. 11.4 artikulua.

4. Kontratueta prezioaren ordainketa geroratu debekatzen da, non ordainketa sistema ez den ezartzen finantza errentamenduen bidez edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidez; foru lege batek espresuki baimentzen duenean era geroratua egin ahalko da.

Bl. 11. artikulua. 6. idatz-zatia gehitzea

“6. Ordainketa finantza-errentaren bidez edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidez ezarria duten kontratueta ez da aplikatuko artikulua honen 5. idatz-zatian ezarritakoa; kasu horretan ordainketarako gehieneko epea lau urtekoa izanen da, kontratuaren adjudikaziotik hasita, epe luzeagorik ez bada adosten, horretarako Nafarroako Gobernuak baimena eman ondotik”.

HIRU. 18.1 artikulua

“1. Foru lege honen ondorioetarako, hornidura kontratuak dira produktu edo ondasun higigarriak erosi, finantza-errentan hartu, finantza-errentan hartu erosteko aukerarekin zein gabe, edo esku-ratzea xede dutenak, jabetza gorpuzgabei eta balore negoziagarrii dagozkienak izan ezik,

horiek kasuan-kasuan aplikatzekoa den ondare legediaren bidez arautuko baitira”.

LAU. 55. artikulua. Bi lerrokada gehitzen dira:

“Obren proiektua egiteko eta horien zuzendaritza fakultatiborako kontratuak batera tramitatzea erabakitzen denetan, ez da gastuaren fiskalizaziorik, onespenik eta horren ondoriozko konpromisohartzerik ere, zuzendaritza fakultatiboari dagokionez, izanen, harik eta hautaturiko proiektuan oinarritutako obra egitea erabakitzen den arte. Baldintza hori administrazio klausula partikularren pleguetan jasoko da.

Aurreko lerrokadan xedaturikoaren ondorioz, obraren zuzendaritza fakultatiborako kontratuaren esleipena gauzatuko da proiektu hautatuari jarraikiz obra egiteko esleipena egiten denean, eta, harekin batera, horretarako gastua egiteko baime-na ere emanen da. Une horretara arte ez da inolako eskubiderik sortuko proposamen hautatua aurkeztu duenaren alde.”

BOST. 80.2 artikulua

“2. Obra kontratueta, zenbatekoa 60.101 euro baino handiagoa ez denean edo, toki entitateen kasuan, euren aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bost baino handiagoa ez denean, baldin eta ehuneko hori aplikatzean 60.101 euro baino handiagoa ez den kopuru bat lortzen bada.”

SEI. 80.3.a) artikulua

“a) Lehen ezarpeneko gastuen aurrekontua 30.050 euro baino handiagoa izanen ez dutela aurreikusten zaien horiek, baldin eta euren iraupen-epea bost urte baino laburragoa bada. Toki entitateetan, kantitate-muga izanen da aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 5ekoa, baldin eta ehuneko hori aplikatzean 30.050 euro baino handiagoa ez den kopuru bat lortzen bada.

ZAZPI. 80.4.a) artikulua

“a) Aurrekontua 30.050 euro edo gutxiagokoa denean; muga hori, 18.2.c) artikuluan dauden kasuetarako, 48.080 eurora arte igotzen da eta 60.101 eurora arte igotzen da produktu kontsumigarri, galkor edo erraz hondatzekoak direnak erosteko kasuetarako. Toki entitateen kasuan, aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 5a baino handiagoa ez den zenbatekoa duten kontratuak, ehuneko hori aplikatuta ateratzen den zenbatekoa arestian adierazitakoak baino handiagoa ez bada.”

ZORTZI. 80.5.a) artikulua.

“a) Aurrekontua 30.050 eurokoa edo, toki entitateen kasuan, aurrekontuaren baliabide arrunten

100eko 5a baino handiagoa ez denean, ehuneko hori aplikatuta ateratzen den zenbatekoa ez bada 30.050 eurotik gorakoa.”

BEDERATZI. 81.3 artikulua.

“3. 12.020 euro edo gutxiagoko prezioa duten kontratuetan eskatuko den agiri bakarra faktura izanen da.”

HAMAR. 82.1.b) artikulua.

“b) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, lehenbiziko aldiz ezartzeko gastuen aurrekontua 60.101 eurotik beherakoa izatea aurreikusten denean, iraupena bost urtetik beherakoa izanik.”

HAMAIIKA. 82.1.c) artikulua.

“c) Gainerako administrazio kontratuetan, aurrekontua 60.101 eurotik beherakoa denean.”

HAMABI. Xedapen gehigarrietan beste bat gehitu da, hamabosgarrena hain zuzen.

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Hornitzaileak hautatzeko kontratu markoa.

1. Produktu edo ondasun jakin batzuen hornitzaileak hautatzea xede duen kontratu markoaren tramitazioa ondoko idatz-zatietan ezarritakoari lotuko zaio.

2. Hornitzaileen hautaketa foru lege honetan ezarritako arau orokorren arabera eginen da. Hala eta guztiz ere, ez da gastua fiskalizatuko, ez onetsiko, ez eta hark sorturiko konpromisoak eskuratuko harik eta xedapen honetako laugarren idatz-zatiaren arabera behar diren adjudikazioak egin arte, eta ez da eratu behar izanen ez behin-behineko ez behin betiko bermerik ere.

3. Kontratu markoaren adjudikazioak, produktu nahiz ondasun mota bakoitzerako, hautatutako hornitzailea edo hornitzaileak zehaztuko ditu, bai eta produktu nahiz ondasun horiek eskuratzeko gehieneko prezioak ere.

4. Hornitzailea hautatzeko kontratu marko baten ondorioz egiten diren kontratu-adjudikazioak publizitaterik gabe negoziaturiko prozedurari jarraituko diote. Betiere, honako berezitasunak hartu beharko dira kontuan:

a) Hautatutako enpresetako hiruri eskatu beharko zaie gutxienez ere eskaintza egin dezate-la. Betebehar hori betetzerik ez badago, arrazoitu egin beharko da.

b) Kontratazio organoaren erabakiak gastuaren onespina eta kontratuaren adjudikazioa jasoko ditu.

c) Kontratuaren oinarritzko baldintzak soilik prestatu beharko dira administrazio klausula partikularren pleguan -hornitzailea hautatzeko prozeduraren hasierako erabakiaren bidez onestsia-ezarritakoari baldintza osagarriak ezartzen bazaizkio edo ituna egiten bada.

d) Hornitzailea hautatzeko lizitazioaren hasierako erabakiaren bidez onestsitako preskripzio teknikoaren pleguari jarraikiz beteko da kontratua.

### Xedapen gehigarriak

**Lehena.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak, foru lege honek indarra hartzen duenean agintarien gidari edo korporazio gidari lanpostu finkoetan ari direnak, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako C mailan sartuko dira. Horrek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra, eta berekin ekarriko du egun jasotzen dituzten ordainsari osagarriak deuseztatzea; bestalde, ez du berekin ekarriko du egun langile horiek jasotzen dituzten oinarritzko ordainsarien gehikuntzarik, gradukoak alde batera utzirik.

**Bigarrena.** 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko departamentuak eta, kasua bada, haren organismo autonomoak eskudunak izanen dira beren jarduketa eremuetan sortzen diren ondare erantzukizuneko prozedurak tramitatzeko eta ebazteko. Berariaz uzten dira indarririk gabe arlo honetan Ekonomia eta Ogasun kontseilariari Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko aurreko legeetan esleitu zitzaizkion eskumenak.

**Hirugarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez, salbuespen gisa eta Toki Administrazioiko Departamentuak txostena eman ondotik, udal eta kontzejuei ondokoak eman ahal izan diezazkien:

a) Nafarroako tributuetan parte-hartzeko funtsetik egiten diren transferentzia arrunten kargura, hiruhileko bateko aurrerakinak; zenbateko hori ekitaldi ekonomikoaren hurrengo hiruhilekoan itzuli beharko da.

Toki entitatearen aurrezki garbiaren, defizitaren eta zorpetze mailaren araberako egoera finantzario eta ekonomikoa dela-eta, ohiz kanpoko neurriak komenigarritzat joko balira, konturako aurrerakina bi hiruhilekoa ere izan liteke.

b) Banaketa-kontuan jasota egon eta epemuga iragan duten zorren ordainketa geroratzea.

Aurrerakin eta gerorapen horiek bakar-bakarrik diruzaintzan atezu larria gertatuz gero emanen dira; betiere, entitate eskatzaileak katastro berriak aplikaturik edo landa eta hiri katastroaren aberas-tasuna gaurkotzeari buruzko hitzarmenak sinatuta edukiz gero.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, entitate eskatzailearen egoera ekonomiko-finantzarioa nolakoa den ikusita erabakiko du zein korritu tasa aplikatu.

**Laugarrena.** Iruñeko Udalarari eman zitzaion aurrerakineko amortizazioen gerorapena onesten duen abenduaren 2ko 15/1997 Foru Legeko 2. artikulua aldatzea; honela geldituko da:

“2. artikulua. Gerorapena 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001. urteetarako da. 2002. urtetik aurrera, Iruñeko Udalak ordaintzeari berrekin beharko dio, 2.103.542,37 euro urtero, aurreraki-na erabat amortizatu arte”.

**Bosgarrena.** 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plana onetsi zuen uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legearen 6. artikulua 1. idatz-zatia aldatzea; honela geldituko da:

“1. Toki azpiegituren hiru urtetarako planerako aportazioak, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital transferentziatzat jotzen direnak hain zuzen, urte bat baino gehiagokoak izanen dira; hona:

	2001		2002	2003	Guztira 01/03
	Milakotan	Eurotan	Eurotan	Eurotan	Eurotan
A) PLAN ZUZENTZAILEAK					
AZTERLANAK	10.100	60.702	60.702	60.702	182.106
GOI PRESIOKO UR HORNIDURA	1.177.660	7.077.879	7.077.879	7.077.879	21.233.637
IBAIK ARAZTU ETA SANEATZEA	707.000	4.249.156	4.249.156	4.249.156	12.747.468
HIRI HONDAKINAK:					
TRATAMENDUA	126.250	758.778	758.778	2.797.159	4.314.715
BILKETA	186.850	1.122.991	1.122.991	846.797	3.092.779
IRUÑERRIKO MK.AREKIKO HITZARMENA	579.600	3.483.466	5.891.842	2.137.981	11.513.289
BERARIAZKO HONDAKINAK	0	0	0	1.824.709	1.824.709
GUZTIRA, PLAN ZUZENTZAILEETAN	2.787.460	16.752.972	19.161.348	18.994.383	54.908.703
B) TOKI PROGRAMAZIOKO INBERTSIOAK UR HORNIDURA, PLAN ZUZENTZAILEETAN					
SARTU GABEKOA	15.150	91.053	91.053	91.053	273.159
UR HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO SARE LOKALAK	1.313.000	7.891.289	7.891.289	7.891.289	23.673.867
ELEKTRIFIKAZIOAK	25.250	151.756	151.756	151.756	455.268
HERRI ARGITERIA	227.250	1.365.800	1.365.800	1.365.800	4.097.400
ZOLADURAK	883.750	5.311.444	5.311.444	5.311.444	15.934.332
UDAL ERAIKINAK	202.000	1.214.044	1.214.044	1.214.044	3.642.132
KANPOSANTUA	101.000	607.022	607.022	607.022	1.821.066
TOKI BIDEAK	101.000	607.022	607.022	607.022	1.821.066
GUZTIRA, TOKI PROGRAMAZIOAN	2.868.400	17.239.430	17.239.430	17.239.430	51.718.290
C) TOKI GARAPENA	40.400	242.809	242.809	242.809	728.427
D) 4050 PLAN GEHIGARRIA	1	6	6	6	18
E) BERARIAZKO PLANA	1.000.000	6.010.121	6.010.121	6.010.121	18.030.363
F) PLAN BEREZIA	350.000	2.103.542	3.906.579	3.906.579	9.916.700
GUZTIRA	7.046.261	42.348.880	46.560.293	46.393.328	135.302.501

**Seigarrena.** Transferentzia arrunten funtsaren eta "Bestelako laguntzak" izenekoaren "c" letraren banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien baloreak foru lege honetako 19. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoari jarraituz lortuko dira.

Aldagai guztien -ahalegin fiskalarena salbu- baloreei dagokienez, erreferentziako urteko balore horiei buruzko daturik eduki ezean, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1eko datu ofizialik dagoen urte berrienerako datuei begiratuko zaie. Data bera hartuta, ahalegin fiskalaren aldagairi dagokionez, kalkulua erreferentziako urteari buruz eskuragarri dauden baloreen arabera egiten da.

**Zazpigarrena.** Hauek dira 2002ko ekitaldian aplikatuko diren saneamendu kanonaren tarifak:

a) Etxeko isurkinak: 0'19 euro/metro kubikoko.

b) Etxekoak ez diren isurkinak: 0'24 euro/metro kubikoko. Behar balitz, karga kutsatzailearen indize zuzentzailea gehituko da. Arazketarako instalazioak elkarren artean finantzatzeko direnean, Toki Administrazioako Departamentuak koefiziente zuzentzaile bat jarri ahal izanen du tarifa; horren aplikazioa hitzarmenez egiten da.

Arazketa biologikorako instalazio pribatuak jatorri dituzten lohiei, baldin eta onartzen badira Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzentzaileari atxikitako hondakin-uren araztegiaren, tarifa bat aplikatuko zaie tratatuak izateagatik; hain zuzen ere, 5,25 euro metro kubikoko.

Aurreko zergei Balio Erantsiaren gaineko Zerga gehituko zaie.

**Zortzigarrena.** Etxebizitza alorreko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legeko 10.artikuluaren F letrako b) eta c) puntuak honela utzi dira:

"b) Mailegu kualifikatuen subsidiazioa, eskuratzaileren famili diru sarrera ponderatuak lanbide-arteko gutxienerako soldataren halako 1,7 baino txikiagoak badira eta etxebizitzak ez baditu 120 metro karratu erabilgarri baino gehiago.

c) Diru laguntza pertsonalak. b) atalean aipatu kasuetan, lagunduko den gehieneko azalera lau- rogeita hamar metro karratu erabilgarrikoa izanen da, familia larrien kasuan izan ezik".

**Bederatzigarrena-** Hona hemen zein izanen den 2002. urtean etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulu ponderatua:

– 01 eremu geografikoari atxikiriko udalentsat: 790,96 euro/m<sup>2</sup> erabilgarri.

– 02 eremu geografikoari atxikiriko udalentsat: 747,72 euro/m<sup>2</sup> erabilgarri.

2002. urtean, etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulu ponderatu gabekoa honakoa izanen da:

– 01 eremu geografikoarentzat: 756,90 euro/m<sup>2</sup> erabilgarri.

– 02 eremu geografikoarentzat: 715,52 euro/m<sup>2</sup> erabilgarri.

2002. urtean, salneurri tasatuko etxebizitzeko metro karratu erabilgarriaren gehieneko salmenta-prezioa 1.067,80 euro izanen da 01 eremu geografikoko udaletan, eta 1.009,42 euro 02 eremu geografikokoetan.

**Hamargarrena.** Ikastetxe itunduak mantentzeko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak. Hezkuntza maila nahiz modalitate ezberdinetan itundutako ikastetxeen eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren urteko zenbatekoak, II. eranskinean ematen dira, kontzeptu bakoitza moduluaren ehuneko zenbat den adierazita. Zenbateko horiek honela daude banatuta: "Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne", eta itundutako unitate bakoitzeko irakasle titular eta atxikien arteko proportzioa, "Gastu aldakorak" eta "Bestelako gastuak".

**Hamaikagarrena.** 1. Baimenik izan gabe 2001/2002 ikasturtearen hasieratik eskolak ematen ari diren eremu ez euskalduneko ikastolak, 2002ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra bitarte finantzatzeko dira, hurrengo araubide berezi eta aldi baterakoari jarraikiz:

– Itunei buruzko arauetan unitate bakoitzarentzat ezarritako gutxienerako ikasle kopurua duten unitateei, unitate bakoitzeko moduluaren foru lege honetan finkaturiko diru laguntza osoa emanen zaie.

– Ez badute lortzen aipatu gutxiengoa, parte proportzionalari emanen zaio diru laguntza, hurrengoaren arabera:

a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako unitateei dagokienez, ikasleko emanen den diru laguntza kalkulatzeko, modulu ekonomikoa zati hemezortzi egiten da.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako unitateei dagokienez, ikasleko emanen den diru laguntza kalkulatzeko, modulu ekonomikoa zati hogeita hiru egiten da.

2. Diru laguntza horiek jasotzeko, unitate bakoitzeko ikasleen zerrenda eman beharko dute ikastolen titularrek .

3. Diru laguntzen araubide berezi eta iragankor honen bidez finantzatzen diren ikastolek, hurrengo ikasturteetan itunei buruz indarra duen araubidea erabili nahi baldin badute, Hezkuntzarako eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1995 Lege Organikoaren 23. artikuluan aurreikusiriko baimena eskatu beharko diote Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, 2002ko maiatzaren 31 baino lehen.

4. Baimen hori eskatzen ez duten ikastolek, bai eta indarra duten arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez dutela-eta baimena lortu ez dutenek ere, ikastetxea gutxieneko baldintzetara egokitze plan bat aurkeztu beharko dute 2002ko ekainaren 30a baino lehen, eta horrela egiten badute, diru laguntzetarako araubide berezia eta iragankor hori (1. idatz-zatian aipatua) luzatuko zaie 2002-2003 ikasturtean.

5. Aurreko idatz-zatietan aurreikusi diru laguntza eta itunak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren 43200-4811-4551, 42000 proiektua izeneko kontusailaren kargura ordainduko dira. Haien zenbatekoa dagokion hezkuntza mailarako foru lege honetan ezarritako moduluaren arabera kalkulatu da.

**Hamabigarrena.** Maisutza Diplomaturako ikasketetako praktikak irakasten diren ikastetxeetako maisu-maistrek 30 euro jasoko dituzte tutoretza pean duten ikasle bakoitzeko.

**Hamahirugarrena.** Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSEaren) bigarren xedapen gehigarriari jarraikiz, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko ikastetxeetan, haur eta lehen hezkuntzan erlijioa irakasten duten aldi baterako lan kontratudun irakasleen lansariak 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina handituko dira. Handitze horren zenbatekoa, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko maisu izateko kontratatu administratiboa duten irakasleekin proportzio jakin bati eusteko behar dena izanen da, alegia, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren menpean irakasgai hori irakasten zuten irakasleen lansarien eta hezkuntza maila bereko aldi baterako irakasleen arteko proportzioa mantentzeko behar dena.

**Hamalagarrena.** Lekualdatze lehiaketa nazionalerako deirik egiten ez den ikasturteetan, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak dei egiten baldin badu unibertsitaterik kanpoko ira-

kasleen lanpostuak betetzeko, prozedura horietan parte hartu ahalko dute Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpekotasun organikoa eta funtzionala duten irakasle kidegoetako funtzionario guztiek, alde batera utzirik azken behin betiko destinoan zenbat denbora eman duten.

**Hamabosgarrena.** 1. Komenigarria izanez gero, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillara ondoko irakasle hauek sartzeko, entitate interesatuak ere ados badaude: Iruñeko Udalaren ikastoletan eta lanbide tailerretan lan egiten duten irakasleak, bai funtzionarioak bai lan kontratu finkoa dutenak, eta beste toki entitate batzuen menpekota izanik, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta lanbide tailerretan lan egiten duten irakasleak, hala funtzionarioak nola lan kontratu finkoa dutenak.

2. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio langile horiek plantillan sartzeko behar diren kredituak har ditzan kasuan kasuko kontusailetatik.

3. Orobat, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, irakasle funtzionario horiek Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan aipatzen diren irakaskuntzak eman behar dituzten irakasle kidegoetan sartzeko behar diren tramiteak egin ditzan.

**Hamaseigarrena.** Udaleko osasun arloko funtzionario titullarrak, foru lege honek indarra hartzen duenean lanpostuaren jabe badira, aukeran izanen dute Foru Komunitateko funtzionario izatera pasatzea, tokiko osasun zerbitzuetara. Horretarako, eskabide idatzia aurkeztu beharko dute Foru Komunitateko Erregistro Orokorrean, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, hortik kontatzen hasita, 30 egun naturaleko epean.

**Hamazazpigarrena.** Nafarroako Gobernuak, bere ekimenez edo interesa duen udal nahiz kontzejuak eskaturik, elkarren ondoko osasun eskualde oinarritzeetan sarturiko barruti eta atalen atxikipena aldatzen ahalko du, baldin eta komenigarria bada, osasun laguntza emateko arrazoiengatik.

Dena dela, aldaketa-espeditetan, nahitaezko entzunaldiak agertu beharko du; hain zuzen ere, eskualde oinarritzeetako ordezkari organoarena, halakorik bada, eta lurralde aldaketak ukituriko udal nahiz kontzejuena.

**Hemezortzigarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio apirilaren 6ko 11/1999 Foru

Legean aurreikusitako lanbide karrerarako sistema aplika diezaien Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko gainerako osasun fakultatiboari, foru lege honek indarra hartzen duenetik.

Hemeretzigarrena. Otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuz onetsi zen Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina aldatu egin da. Hona:

Bat. 3 c) artikulua

“c) Ondoko inbertsio hauek:

- Tuberkulosiaren, bruzelosiaren, leukosiaren eta peripneumoniaren aurkako osasun kanpainen ondorioz hil diren behiak ordeztzekoak, nekazaritzako aseguru konbinatueterako indarra duen planean babestu ezin badira.

- Kooperatibek eta eraldaketako nekazaritza sozietateek makinak erostekoak, baldin eta makina horiek bazkideek zuzenean erabiltzeko erosten badira.

Bi. Hamalagarren artikuluko bigarren lerrokanda indarrak gabe uzten da.

3. 21. artikulua

21. artikulua. Diru laguntzaren zenbatekoa

“16. artikuluko a) letran aipatzen diren laguntzak gauzatzeko, aseguruaren kostua ordaintzeko diru laguntza emanen da, Estatuko Nekazaritza-Asegurueterako Entitateak xede bererako emandakoa kontuan hartuz; diru laguntza bien batuketa ezin izanen da aseguruaren kostuaren 100eko 80tik gorakoa izan.

**Hogeigarrena.** FEOGAko Berme ataleko kontuak kitzatzeko prozedurari dagokionez, Europako Kontseiluaren 729/70 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Europar Batzordearen 1995eko uztailaren 7ko 1663/95 Erregelamenduaren ondoriozko betebeharrak beteko direla bermatzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta Ingu-rumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak laguntza kontratuak egiten ahalko dituzte, FEOGAko aipaturiko Berme ataletik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri hartzen diren egitateak kontrolatu eta egiaztatuzko, edo Nafarroako Foru Komunitateko Erakunde Ordaintzailearen funtzioak betetzen laguntzeko. Halaber, Nafarroako Gobernuak eraturiko sozietate publikoen esku utzi ahal izanen ditu eginbehar horiek, haiek gauza ditzaten.

**Hogeita batgarrena.** Jarduketa eremua Nafarroako Foru Komunitatean duen nekazaritzako eli-

kagaien arloko jatorrizko deitura bat uzten duten pertsona fisiko edo juridikoek, jatorrizko deiturarekin zuzeneko edo zeharkako lotura izanik azken bost urteetan Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura jaso dituzten laguntza publikoak itzuli beharko dizkiote Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari; Nafarroako Gobernuak kudeaturiko eskubide eta kuotak ere itzuli beharko dituzte, bai eta dagokien berandutza interesa ere. Halaber, hurrengo bost urteetan, ez dute eskubiderik izanen Nafarroako aurrekontu orokorren kargura deiturari loturiko nekazaritzako laguntza publikoak eta nekazaritzako kuota eta eskubideak berriz jasotzeko.

**Hogeita bigarrena.** Ekimen publikoko industrialdeen akatsak eta ezak konpontzeko inbertsioak sustatzen dituzten toki entitateek, haiei bada-gokie industrialdeak zaindu eta mantentzea, zilegi izanen dute udal mailako jarduera ekonomikoak paratzeko industrialdeen sustapenari buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legeko 5. artikuluan aurreikusitako laguntzak jasotzea, baldin eta egin zirenetik gutxienez hamabost urte iragan baldin badira eta 300.000 eurotik gorako inbertsioa bada.

**Hogeita hirugarrena.** Ahalmena ematen zaio Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari behar dituen lankidetzak hitzarmenak egiteko “Navarra de Suelo Industrial S.A.” (NASUINSA) sozietate publikoarekin; hain zuzen ere, hitzarmen horien helburua da industri azpiegituren eskasiak betetzea, betiere 2002. urterako Aurrekontu Orokorretan horretarako jarri diren kontusailen kargura.

**Hogeita laugarrena.** Baldin eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak aldizkako prestazioak eta pentsioak ordaindu eta horiek ez baziren jaso behar, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zenbateko horien itzulketak zatituko du, aipatutako erakunde autonomoak proposatuta hala tokatzen bada; Departamentuak, betiere, ez du ez korriturik ez bermerik eskatuko.

**Hogeita bosgarrena.** Zahar-etxeetako egonaldia finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen 17/2000 Foru Legea ezartzen duenari jarraituz, hileko prezio gehienekoa kostu zuzen, egoztekoak diren kostu orokor eta merkatuko prezioei egokituko zaiela bermatzeko, prezioa lanbide arteko gutxieneko soldataren 1,85 halako izanen dela ezartzen da.

**Hogeita seigarrena.** Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuak ezarritako Transfrentzien Batzarrean Parlamentuko talde guztiek izanen dute ordezkaritza espresuki hala eskatuta

badute, edo hala eskatzen badute. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak bere adostasuna emateko Estatuko zerbitzuen transferentzia bati, betiere beharrezkoa izanen da Parlamentuko taldeetako ordezkari gehienen aldeko botoa; ondorio horietarako, ordezkari horietako bakoitzak bere

taldean zenbat parlamentario dauden, horren arabera boto kopurua izanen du.

**Azken xedapena**

Foru lege honek 2002ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

---





**I. ERANSKINA**

(zenbatekoak eurotan)

2002.- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioak, Bigarren Hezkuntzako katedradun izaera dutenak; Musika eta Eszena Arteetako Katedradunen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Arte Plastiko eta Diseinu katedradun izaera dutenak; Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun izaera dutenak, eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	7.593,34	7.677,24	7.677,24	7.677,24	7.740,18	7.740,18	7.740,18	7.813,59
Adina 63 urte	7.824,08	7.824,08	7.824,08	7.897,48	7.897,48	7.897,48	7.970,90	8.243,11
Adina 62 urte	7.970,90	7.970,90	8.054,82	8.054,82	8.348,48	8.904,35	9.565,09	10.341,20
Adina 61 urte	8.128,23	8.191,16	8.558,23	9.156,05	9.858,75	10.687,32	11.641,71	12.690,52
Adina 60 urte	8.526,78	9.124,59	9.816,80	10.634,86	11.589,29	12.711,50	13.959,57	13.959,57

2002.- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko, Musika eta Eszena Arteetako irakasleen kidegoko, Arte Plastiko eta Diseinu irakasleen kidegoko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	7.655,07	7.739,66	7.739,66	7.739,66	7.803,10	7.803,10	7.803,10	7.877,12
Adina 63 urte	7.887,69	7.887,69	7.887,69	7.961,70	7.961,70	7.961,70	8.035,72	8.035,72
Adina 62 urte	8.035,72	8.035,72	8.120,30	8.120,30	8.120,30	8.204,88	8.511,51	9.103,62
Adina 61 urte	8.194,31	8.278,90	8.278,90	8.278,90	8.744,12	9.367,95	10.097,51	10.953,95
Adina 60 urte	8.278,90	8.278,90	8.712,41	9.325,66	10.055,21	10.901,08	11.894,97	13.068,61

2002.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko edo Arte plastiko eta Diseinuko Lantegi maisu-maistren kidegoko funtzionarioak

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	6.366,58	6.422,33	6.422,33	6.422,33	6.468,81	6.468,81	6.468,81	6.524,57
Adina 63 urte	6.533,88	6.533,88	6.533,88	6.580,35	6.580,35	6.580,35	6.645,40	6.645,40
Adina 62 urte	6.645,40	6.645,40	6.701,17	6.701,17	6.701,17	7.054,36	7.481,89	8.002,36
Adina 61 urte	6.756,94	6.812,70	6.812,70	7.212,35	7.686,37	8.234,73	8.876,03	9.628,87
Adina 60 urte	6.812,70	7.193,77	7.658,49	8.197,55	8.838,85	9.582,39	10.456,07	11.487,72

2002.- Maisu-Maistren kidegoko funtzionarioak

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	6.344,41	6.393,43	6.393,43	6.393,43	6.452,28	6.452,28	6.452,28	6.511,10
Adina 63 urte	6.893,54	6.893,54	6.893,54	6.942,56	6.942,56	6.942,56	7.011,20	7.011,20
Adina 62 urte	7.011,20	7.011,20	7.070,05	7.070,05	7.070,05	7.138,69	7.403,44	7.854,51
Adina 61 urte	7.128,87	7.187,71	7.187,71	7.187,71	7.570,14	8.060,44	8.629,17	9.305,78
Adina 60 urte	7.187,71	7.187,71	7.550,53	8.040,82	8.599,76	9.266,56	10.041,22	10.953,18

## II. ERANSKINA

(zenbatekoak eurotan)

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAKORRAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,12		31.717,12	75,50	3.960,02	9,43	6.332,43	15,07	42.009,57
LEHEN HEZKUNTZA	1,28		36.248,14	74,59	5.619,81	11,56	6.732,05	13,85	48.600,00
D.B.H., LEHEN ZIKLOA	1,52		43.970,13	75,84	5.967,73	10,29	8.039,83	13,87	57.977,69
D.B.H., BIGARREN ZIKLOA	1,59		52.411,97	77,50	6.155,25	9,10	9.064,51	13,40	67.631,73
D.B.H., CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA	0,68	0,6	39.990,70	74,03	4.961,64	9,19	9.064,51	16,78	54.016,85
D.B.H., CURRICULUM EGOKITUKO UNITATEA	0,88	0,6	46.583,40	76,10	5.565,95	9,09	9.064,51	14,81	61.213,86
BATXILLERGOA	1,52		50.104,52	75,85	6.890,18	10,43	9.064,51	13,72	66.059,21
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PRESTATUNTZA IKASTAROA	1,44		47.467,44	75,58	6.277,33	9,99	9.064,51	14,43	62.809,28

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	LANGILE OSAG.	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA PSIKIKOAK	1		28.318,86	45,34	3.092,88	4,95	6.732,05	10,78	24.319,23	38,93	62.463,02
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA AUTISTAK	1		28.318,86	49,30	3.092,88	5,39	6.732,44	11,72	19.292,07	33,59	57.436,25
LANBIDE HEZIKETA BEREZIKO HASTAPEN PROGRAMAK	1	1	57.062,90	52,95	6.170,41	5,72	9.064,51	8,41	35.479,41	32,92	107.777,23
BIZITZA HELDURAKO PRESTATZEKO PROGRAMAK	0,64	0,36	28.471,92	49,30	3.255,29	5,64	6.732,44	11,66	19.292,07	33,40	57.751,72

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA	1	0,52	0,92	44.090,16	72,24	5.406,85	8,86	11.537,93	18,90	61.034,94
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35
2) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA zatikako eskaintza hiru kurtsoan antolatuta	1	0,36	0,32	21.240,48	68,93	2.673,49	8,68	6.901,33	22,39	30.815,30
	2	0,36	0,24	18.897,07	72,80	2.424,41	9,34	4.636,61	17,86	25.958,09
	3	0,24		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35
3) E.H.Z., ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	1	0,4	1,2	48.336,45	74,72	5.791,50	8,95	10.564,55	16,33	64.692,50
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35
4) E.H.Z. SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA	1	0,48	1,24	52.145,23	68,14	6.240,85	8,15	18.143,91	23,71	76.529,99
	2	0,84	0,56	44.093,16	65,01	5.585,08	8,24	18.143,91	26,75	67.822,15
5) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETAKO AURREINPRIMAK.	1	0,4	1,12	45.993,03	68,52	5.542,41	8,26	15.587,18	23,22	67.122,62
	2	0,68	0,68	42.334,11	66,95	5.309,15	8,40	15.587,18	24,65	63.230,44
6) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETAKO INPRIMAK.	1	0,56	0,96	46.580,40	66,72	6.514,00	9,33	16.722,77	23,95	69.817,17
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35
7) E.H.Z., AROTZ-LANAK ETA ALTZARIAK NEURRIRA EGIN ETA INSTALATZEA	1	0,76	0,92	52.001,39	70,25	6.381,21	8,62	15.641,25	21,13	74.023,85
	2	0,52	0,92	44.090,16	67,69	5.406,85	8,30	15.641,25	24,01	65.138,26
8) E.H.Z., FARMAZIA	1	0,36	1,08	43.502,81	73,53	5.255,47	8,89	10.402,32	17,58	59.160,60
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35
9) E.H.Z., EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTRONIKOAK	1	0,64	0,96	49.217,48	69,33	6.018,59	8,48	15.749,40	22,19	70.985,47
	2	0,6	0,76	42.040,44	66,71	5.233,46	8,30	15.749,40	24,99	63.023,30
10) E.H.Z., MEKANIZAZIOA	1	0,56	1,2	53.610,62	70,65	6.441,07	8,49	15.828,72	20,86	75.880,41
	2	0,6	0,8	43.212,14	67,10	5.357,78	8,32	15.828,72	24,58	64.398,64
11) E.H.Z., MERKATARITZA	1	0,96	0,64	50.392,18	74,65	6.321,35	9,36	10.791,67	15,99	67.505,20
	2	1,6		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) G.H.Z., NAZIOARTEKO MERKATARITZA	1	1,08	0,32	44.974,20	74,09	5.812,16	9,57	9.915,63	16,34	60.701,99
	2	1,04	0,2	40.140,55	72,54	5.276,13	9,54	9.915,63	17,92	55.332,31
2) G.H.Z., PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA	1	1,32	0,24	50.542,02	71,21	6.537,43	9,21	13.899,99	19,58	70.979,44
	2	0,68	0,72	43.505,81	69,23	5.433,70	8,65	13.899,99	22,12	62.839,50
3) G.H.Z., ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	1	0,8	0,48	40.431,22	72,09	5.173,61	9,22	10.483,44	18,69	56.088,27
	2	0,68	0,72	41.752,86	72,30	5.514,22	9,55	10.483,44	18,15	57.750,52
4) G.H.Z., OSASUN DOKUMENTAZIOA	1	0,96	0,48	45.705,37	72,03	5.823,17	9,18	11.927,28	18,79	63.455,82
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35
5) G.H.Z., HAUR HEZKUNTZA	1	0,64	0,64	46.874,08	74,89	5.769,51	9,22	9.948,08	15,89	62.591,67
	2	1	0	32.963,50	69,54	4.491,02	9,47	9.948,08	20,99	47.402,60
6) G.H.Z., MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA	1	0,96	0,64	50.392,18	75,08	6.321,35	9,42	10.402,32	15,50	67.115,85
	2	0,24		7.911,24	73,03	974,35	9,00	1.946,76	17,97	10.832,35
7) G.H.Z., INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA	1	1,2	0,52	54.788,31	75,45	6.922,06	9,53	10.905,23	15,02	72.615,60
	2	0,24	0,44	44.533,68	72,84	5.698,61	9,32	10.905,23	17,84	61.137,52
8) G.H.Z., ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMAK	1	0,96	0,8	55.078,99	74,16	6.819,53	9,18	12.375,03	16,66	74.273,55
	2	1,08	0,32	44.974,19	71,21	5.812,16	9,20	12.375,03	19,59	63.161,38
9) G.H.Z., MEKANIZAZKO BIDEZKO PRODUKZIOA	1	0,6	1	49.070,63	70,94	5.980,73	8,65	14.116,28	20,41	69.167,64
	2	1,2	0,2	45.414,70	69,38	5.925,69	9,05	14.116,28	21,57	65.456,67
10) G.H.Z., GARRAIOAREN KUDEAKETA	1	0,72	0,64	42.480,95	73,57	5.346,99	9,26	9.915,63	17,17	57.743,57
	2	1,24	0	40.874,74	72,66	5.465,37	9,71	9.915,63	17,63	56.255,74
11) G.H.Z., INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA	1	1,16	0,48	52.298,08	75,25	6.635,13	9,55	10.564,55	15,20	69.497,76
	2	0,96	0,36	42.190,28	72,49	5.449,52	9,36	10.564,55	18,15	58.204,35
12) G.H.Z., ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITOLOGIA	1	0,88	0,68	48.926,81	73,24	6.121,12	9,16	11.758,56	17,60	66.806,49
	2	1,08	0	35.600,58	68,23	4.815,78	9,23	11.758,56	22,54	52.174,92
13) G.H.Z., ARTE GRAFIKOETAKO PRODUKZIOA	1	0,36	1,24	48.189,61	69,37	5.753,66	8,28	15.522,29	22,35	69.465,56
	2	0,96	0,44	44.533,68	67,73	5.698,61	8,67	15.522,29	23,60	65.754,58
14) G.H.Z., PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA	1	0,76	0,8	48.486,29	71,07	6.007,58	8,81	13.726,94	20,12	68.220,81
	2	1,4	0	46.148,90	69,93	6.114,93	9,27	13.726,94	20,80	65.990,77

---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari enzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko hurrengo arauak onartzea:

1go. 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua –proiektua aurrerantzean– Nafarroako Gobernuaren 2001eko azaroaren 14ko Erabakiz Biltzarrera bidalia izan dena eta Parlamentuko Erregistro Orokorrean 2001eko azaroaren 14an sartu dena, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari igorriko zaio, horrek izapida dezan.

2gn. Proiektua berehala argitaratuko da Biltzarreko Aldizkari Ofizialean, eta argitaratzearekin batera epe bat irekiko da, 2001eko abenduaren 5eko goizeko 12:00etan bukatuko dena. Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari zuzendutako ziodun idatziaren bitartez.

3gn. Zuzenketak izan ahalko dira:

a) Proiektu osoarekikoak, proiektua Foru Diputazioari itzultzeko proposatuz eta hasierako proiektuaren oinarri izan zirenez bestelako printzipioetan oinarritutako proiektua lantzeko agindua emanez Foru Diputazioari.

Programa eta Ekonomia Korrelazioa izenekoan agertzen diren programen egituretako edozeinekikoak. Programen Egitura bat erabat aurkatzeko helburua duten zuzenketak osoko zuzenketa bezala planteatu beharko dira.

b) Proiektuaren barruko edozein programa, proiektu zein gastu-kontzepturekikoak.

Aurrekontuen kontabilitate-lerrokako sailkapena jasotzen duen liburukian eginen da aipatu gastu-kategorien identifikazioa.

c) Proiektuaren edozein artukulurekikoak.

4gn. Kontzepturen baten gastu-gehikuntza edo dirusarrerren gutxitzea dakarten zuzenketek Foru Diputazioaren aurreko onespina beharko dute biderapenerako onetsiak izateko.

Hala ere, aipatu onespina ez da derrigorrezkoa izanen aurkeztutako zuzenketak gastu-gehikuntza edo dirusarrerren gutxitzea finantzatzeko proiektuan izendaturiko baliabideak zehazten baldin baditu.

Aipatu baliabideak izendatzeko modua aurreko xedapenean zehaztu dena izango da.

5gn. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino lehen, Parlamentuko lehendakariak Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren arteko lan-bilerarako deia eginen du; zuzendari nagusiekin eta egoki irizitako teknikariekin bertaratu daiteke aipatu kontseilaria.

6gn. Osoko zuzenketarik aurkeztu baldin bada, Batzordeko Mahaiak tramitera onartu ala ez erabakiko du eta Batzordeko lehendakariak Parlamentuko lehendakariari bidaliko dizkio, eztabaidatu behar diren Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko.

7gn. Artikuluei eta kontabilitate-lerroei zuzenketak aurkezteko epea bukatu ondoren, zuzenketak tramitera onartzeari buruzko iritzia emango du Batzordeko Mahaiak; Foru Diputazioak, noski, gastu-gehikuntza edo dirusarrerren gutxitzea ekar dezaketenei buruzko txostena aurretik egin beharko du eta egun baliodun bateko epearen barruan bidali. Bilkura berean ekinen dio Batzordeko Mahaiak tramitera onartutako gainerako zuzenketak sailkatzeari eta Batzordekideei eta Biltzarreko lehendakariari helaraziko dizkie.

8gn. Parlamentuko lehendakariak Ekonomia eta Ogasun Batzordea biltzeko deia egin dezake, hogeita lau ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin, eztabaidari ekiteko.

9gn. Osoko Bilkuran, osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 88 eta 130. artikuluek ezarritakoaren arabera egingen da.

10gn. Osoko eztabaida bukatu eta Osoko Bilkurak proiektua Foru Diputazioari itzultzea erabaki ez bada, edo osoko zuzenketarik ez bada, Biltzarreko lehendakariak finkatu toki, egun eta orduan bilduko da Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea, arau hauen 8. puntuaren arabera deialdian.

11gn. Batzordean, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenbizi, Erregelamenduaren 131. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren artikulak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak.

12gn. Ondoren, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira, Erregelamenduaren 131. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: zuzenketak aurkeztu zaizkien gastu- eta dirusarrerakategoria ezberdinak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak. Zuzenketarik jaso ez dituztenak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

13gn. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea abenduaren 21eko 20:00etan bukatuko da.

14gn. Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko dira 2002 Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuko artikulak eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak. Multzoka eztabaidatuko dira; hain zuzen ere, Parlamentuko talde bakoitzari txanda bat egokituko zaio bere zuzenketa eta boto partikular guztiak defendatzeko.

15gn. Horren ondoren eztabaidatu eta bozkatuko dira zuzenketen edo boto partikularren xede izan diren gastu eta dirusarrera kategoriak eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak. Haien eztabaida departamentuka burutuko da, Parlamentuko talde bakoitzak departamentu berrari dagozkion zuzenketa edo boto partikular guztiak batean defenda ditzan eta, halaber, zuzenketa edo boto partikularrei buruzko txandak elkartuko dira. Zuzenketen edo boto partikularren xede izan ez direnak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

16gn. Zuzenketak onestearen edo dirusarrera- edo gastu-artikulu edo kontzeptuak bozkatzearen ondoriozko artikulak edo kontzeptu haiek zentzugabeak edo osatugabeak badira Aurrekontuak kontabilitate-lerroka biltzen dituen liburukiarekiko, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko Mahaiak eta, hala balitz, Biltzarreko Mahaiak behar diren aldaketak sartzan ahalgo dituzte, izan zitezkeen zentzugabekeriak zuzentzeko.

17gn. Arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituko zaio.

18gn. Biltzarreko Mahaiaren Erabakiaren bidez aldatzen ahalgo dira arau hauek, Eledunen Batzarrarekin bat.

2. Arau hauek Parlamentuko taldeen eledunei, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko Mahaiari eta Foru Diputazioari igortzea, eta Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--